

Aske izatera deituak

8. saioa

ASKATASUNA ideia oso ezaguna dugu, baina, benetan, ulertzen dugu zer adierazi nahi duen?

Jainkoak aske egin gintuen eta, ondorioz, guraso sinestedunok erronka handia dugu aurrez aurre: gure seme eta alabak ikuspuntu horretatik hezi. Ondorengo hausnarketa hau lagungarri izango ahal dogu horretarako.

Gaurko saioan, zer adierazten duen eta guri zer esaten digun aztertuko dugu.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Askatasunaren esperientzia pertsonalean sakondu
- Askatasunerako hezkuntzaren ezaugarrien inguruan hausnartu
- Jesusek proposatzen digun askatasuna ulertu

Haurrak:

- Aske sentitzearen poztasuna bizi

GARAPENA

Denok batera gaudela, aurkezpena eginez emango diogu hasiera saioari. Familia bakoitzak giro lasaian egin dezala aurkezpena, hasieratik bertatik taldean giro atsegina eta konfiantzazkoa izan dadin.

Eragileak, bere aldetik, saioan garatuko duten gaiari sarrera orokorra egingo dio.

Denok batera gaudela, "txotxongiloen jolasa" egingo dugu. Bikoteka banatuko gara eta hari ikusezin batez loturik gaudela imajinatuko dugu. Bikotekide batek hari-muturra maneatuko du eta besteak gorputzaren atalen bati (hatza, sudurra, belarria, oina...) lotuta izango du beste muturra. Azken honek, lehenengoak agintzen diona egin behar du. Rolak aldatu; zenbakiak aldatu (batek bi, hiru, bost... gidatuko ditu).

Ondoren, helduak eta haurrak banatu eta leku desberdinetan bilduko dira.

HAURRAK

Beste joko bat proposatuko diegu haurrei: eskuak edo oinak loturik dituztela norabait iristen eta zaila den zerbait lortzen saiatuko dira. Ondoren, inongo loturarik gabe errepikatuko dugu dinamika bera.

Ondoren, elkarrizketan jardungo dugu, honako galderen haritik: Nola sentitu gara loturik eta loturarik gabe? Noiz gaude alaiago: nahi ditugun gauzak egin ditzakegunean ala zer egin agintzen digutenean? Beti nahi duguna egin ote dezakegu? Zer dela-eta jartzen dizkigute arauak aitak eta amak?

Taldeka, labirintoetan irtenbidea aurkitzen arituko dira orain. Materialetan hiru aurkituko ditugu, adinaren arabera lantzekoak. Delako irtenbide hori aurkitu ondoren, eragileak galdera hauek egingo ditu eta solasean jardungo dute:

- Bide guztiak berdinak dira?
- Bide guztiek leku berera garamatzate?
- Nola erabakitzen dugu zein bidetatik jo?
- Zer gertatzen da huts egiten badugu?

Unean-unean hartzen ditugun erabakiek norabide batean ala bestean garamatzatela ikusaraziko die eragileak, hau da, gure erabaki guztiek, baita arruntenek ere, ondorioak dakartzatela.

HELDUAK

“Txotxongiloen jolasaren” ostean, elkarrizketari ekingo diogu eta eragileak “Askatasuna” idazkiko ideiak aurkeztuko ditu (*edo idazkia banatu, irakurri eta komentatzeko*).

Galdera hauen inguruan hitz egin daiteke:

- Nola sentitzen dut aske izateko nahia?
- Eragotzi edo mugatua sentitzen ote naiz askatasun-nahi horretan? Nola? Zertan?
- Zerk lotzen gaitu, zerk galarazten digu aske izatea?
- “Jainkoak aske egin gaitu”, zer adierazten du horrek zuretzat?
- Jesus “gizon askea” izan zela esango zenuke?
- Komentatu Itun Berriko pasarte hau:
*“Zuek, senideok, askatasunera deitu zintuzten Jainkoak;
baina askatasun hori ez bekizue aitzakia izan grina txarren arabera bizitzeko;
maitasunak egin zaitzatela elkarren zerbitzari” (Gal 5, 13-14)*
- Fedea askatasunerako eragozpen ala askapen-iturri ote da?

“Askatasunean hezi” idazkia banatu, bikoteak etxean lan dezan.

AZKEN UNEA, DENAK BATERA

Saioari amaiera emateko, guraso eta haurrak elkarrekin daudela, askatasunaren otoitza (materialen artean dago) egingo dute. Familia bakoitzak gustatu zaion esaldiren bat errepika dezake.